

Iñaki Odriozola Sustaeta

IRAKASLEA

Aberastasunak banatu, ez zorrak

Bi urte badira, jada, krisi ekonomiko famatua gainera –literalki gainera– etorri zitzaigunetik, eta inguruko denok, sozialista antzekoak asko, betiko sindikalistak, izandako komunistak, oraingo aurrerakoiak, krisiari buruzko “konponbideak” derrigorrez ezartzen ari zaizkigun honetan, gure ardura eta egonezina adierazten ari gara.

Batzuek diote krisia ez dutela langileek ordaindu behar; beste batzuek, funtzionarioek ere ez daukatela zertan ordaindu; badaude esaten dutenak iruzur fiskala sakonki begiratzu gero, neurri askoz ere bigunagoak hartuta nahikoa izango litzatekeela krisia gaingiditzeko.

Denok ados gaude erretiroak eta pensioak ez direla ukitu behar; eskubide sozialak, hezkuntza eta osasunari buruzkoak batez ere –lortzen hainbeste kostatu zaizkigunak–, mantendu behar direla. Eta denok ados gaude, krisiaren erantzulea ez dela jendartearen gehiengo zintzoa, lan egiten duena, ezagutzen dugun auzoko herritar hipotekatua, asko daukaten gutxi batzuen gehiegikeria, eta hauek sortu eta garatu duten merkatu sistema eroa baizik.

Norbaitek esan zidan joan zen astean, guri krisiaren zati bat ordaintzea badagokigu, bankuek ere, euren aldetik zerbaiz jarri



DANI BLANCO

beharko luketela. Esaterako, “Botinek sei hilabeteko etekinak gizarteari eskainiko balizkio –zioen lagunak– estatuaren defizita ederto murriztuko litzateke”.

Eztabaida hauetan aipatzen edo defendatzen ditugun argudio guztiak ikusi eta gero, niretzako, ez gabiltzala ondo. Esan nahi dut, langileek edo funtzionarioek ordaindu, bankeroek edo enpresarioek ordaindu, azkenean, krisiari eurak nahi duten irtenbidea proposatzen ari garela, hain zuzen ere. Kapitalismoaren soka, berriz ere –zorrak denon artean banatu eta gero–, mugiaraziko dugu, merkatuaren berregituraketa eginaz, sistema “hobetuz”, eta beste ziklo bati hasiera emanaz. Baina gure helburua –gizartearen gehiengoarena, krisia pairatzen dugunona– ez litzateke hori izan behar. Merkatu sistema eroak sortzen dituzenez desorekak eta krisiak, sosegu eza eta ezbeharrak, helburua merkatuaren agintetik ahalik eta eremu gehien kentzea izan beharko litzateke, herritarren beharretara egokituz, eta jendartearen kontrolpean jarritz.

Eraginkortasuna lortzeko, beste arlo guztietan egiten dugun bezala, jendartearen eremu ekonomikoa planifikatzea izango da modu bakarra, arrazionalki, zorrak banatzen, aberastasuna banatzera igarotzeko. Non dago oztopoa? ■

«
Helburua merkatuaren
agintetik ahalik eta eremu
gehien kentzea izan
beharko litzateke,
herritarren beharretara
egokituz, eta jendartearen
kontrolpean jarritz
 »

TXANDAN

Amatiño



Ekonomiarekiko mespretxua, alegia. Mendebaldeak bizi duen krisiaren arrazoietakoa bat finantza-merkatuen gehiegikeria denik ez du inork ukatzen. Inor gutxi gogorazten du, ordea, finantza-merkatu horien nagusitasuna ekonomia erreala gutxies-teari darionik. Labur esanda: heldu ginen heldu ginen gailurrera ekonomia errealean sinetsi eta sustatu genuelako; eta heldu gara heldu garen amildetara sasi-ekonomiaren finantza-trikimailuei amore eman diegulako. Gure aita zenak esan ohi zigun orain berrogei urte: “Gaurreguneko gazterixiak

Mespretxua

lehenago ikasten jok gastatzen irabazten baino”. Zer esango ote luke orain bizi izango balitz...

Finantza-merkatuetan ezezik, euskal gizartearen baitan ere ez dago batere modan ekonomia erreala. Hemengo abertzaletasunak, oro har, erraz –errazegi– heldu ohi dio txakur handiko hitz potoloen erreterika aldarrikatzaileari eta erraz –errazegi– egin izaten dio muzin, berriz, eguneroko ekonomia errealarari.

Hitzetik hortzera aipatu ohi dugu Eskozia, Flandria edo Kataluniaren abertzaletasuna. Baina horiek ekonomia erreala dute gogoan eta guk, aldiz, erreterika kanpolarrosa. ■